

ITSASONDOKO ALKATETZAREN ADIERAZPENA AHT-REN INGURUKO HERRI KONTSULTA BALORATZEKO

1.-Itsasondo udalak zoriondu egin nahi die Itsasondoko herritarrei Herri Kontsultaren prozesuak iraun duen bi hilabete hauetan informazioa aztertzeke, bilera eta hitzaldietan eztabaidatzeko eta gaur bertan euren bozka emateko erakutsi duten jarrera demokratiko eta aktiboagatik.

2.-Itsasondoko Udalak, jakinarazi nahi dio Itsasondoko herriari eta Euskal Herri osoari gaur, abenduaren 3an, Itsasondon AHT-ren inguruan antolatu duen Herri Kontsultaren emaitza:

-Galdera: Abiadura Handiko Trenaren alde al zaude?

- **Zentso elektorala:525**
- **Parte hartzea: 232 (%44)**
- **Baiezkoak: 25 (%10,77)**
- **Ezezkoak: 205 (%88,36)**
- **Txuriak: 2 (%0,87)**

3.-Itsasondoko Udalak, emaitza hauen berri zuzenean komunikatuko dio Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari.

4.-Itsasondoko Udalak antolatutako Herri Kontsultaren bitartez Itsasondoko herria AHT-ren aurka argi eta garbi agertu da, bozkatzeke eskubidea dutenen artean %44k hartu du parte, hoietatik %88ak AHTren aurka bozkatu duelarik. Hau dela eta, Itsasondoko Udalak Jaurlaritzari eta Estatuko Gobernuari Itsasondoko herriak hartutako erabakia errespetatua izan dadila exigitzen die. Horrekin batera, herriei zor zaien errespetua ere aldarrikatzen dugu. Bereziki, Abiadura Handiko Trenaren egitasmoak kalte eta eragin handiak sortuko dituelako Itsasondoko ingurumenean eta bizi kalitatean. Ez bakarrik gure herrian. Ibilbideko beste herrien etorkizuna ere erabat baldintzatuko du. Komunikaziorako azpiegitura izan beharrean gure herriak inkomunikatuko ditu. AHT bultzatu nahi duten erakundeek, eta bereziki Jaurlaritzak, herriekin eta herritarrekin kontatu gabe bultzatu nahi dute egitasmo erraldoi hau.

5.-Itsasondoko udalak, hurrengo egunetan aztertu eta jakinaraziko ditu martxan ipiniko dituen bideak Itsasondoko herriaren hitza errespetatua izan dadin.

6.-Itsasondoko udalak, AHT-ren egitasmoaren gainean herriak eta herritarrak erabaki behar dutela aldarrikatzen dugu. Aitzitik, Itsasondoko udalak ibilbideko beste udalak animatu nahi ditu Herri Kontsultak antolatzera, herriaren hitza eta erabakia bermatu dadin.

Itsasondon, 2006ko abenduaren 3an.

Xabier Iturrioz. Itsasondoko alkatea.